

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Eskubide Sozialetako Departamentuak 1,2 milioi euro emango ditu gizarteratze-proiektuetarako

*Aurrekontua % 34,6 igo da 2017. urtekoaren aldean, eta 27 erakunderen artean banatuko da —denera, 30 proiektu egingo dituzte—*

*Asteartea, 2018.eko uztaillak 17*

Eskubide Sozialetako Departamentuak, Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako Zuzendaritza Nagusiaren bidez, deialdia ebatzi du 2018an talde zaugarrienen gizarteratzea eta sustapen soziala xede duten proiektuak egiteko diru-laguntzetarako.

1.213.310,00 euroak 27 gizarte-erakunderen artean banatuko dira, eta, horri esker, 30 proiektu inplementatu eta garatuko dira deialdian jasotzen diren modalitateetakoaren batean.

Diruz lagundutako proiektuen xedea da Nafarroan gizarte-bazterketan dauden pertsonen bizi-baldintzak hobetzea, jarduera-modalitate hauen bidez: pertsonak okupazio-zentroetan parte hartzea; gizarte-bazterketan dauden pertsonentzako egoitza-lekuak; elikadura-beharrizanak hobeto estaltzea; prostituzioan dihardutenei zuzendutako laguntza soziala; ijitoen sustapen sozialera bideratutako jarduerak; presoentzako edo preso ohientzako gizarte- eta hezkuntza-jarduerak; gizarteratze-prozesuan dauden immigranteekiko proiektuak garatzera bideratutako jarduerak; buru-osasunaren asaldurengatik tratamenduan daudenei eta gizarte-bazterketarako beste faktore batzuk ere badituztenei zuzendutako gizarteratze-jarduerak; errefuxiatuen gizarteratzean laguntza soziala emateko proiektuak; eta, aurten, berritasun gisa, gizarteratzearen esparruko gizarte-berrikuntzako proiektuen modalitatea gehitu da.

### Modalitateak eta proiektuak

Lehenengo modalitateak (A modalitatea), gizarte-bazterketan dauden pertsonak okupazio-zentroetan parte har dezaten sustatzera bideratuta dagoenak, 29.277,90 euroko aurrekontua izango du.

B modalitatean (gizarte-bazterketan dauden pertsonentzako egoitza-lekuak martxan jartzea xede duena), 132.727,89 euro emango dira bost proiektuetarako, tartean bazterketa-egoeran dauden emakumeentzako harrera- eta zaintza-etxea, egoitza komunitarioa, helduarora igartzeko pisua eta zaugarritasun-egoeran dauden emakumeentzako harrera integralerako programa.

C modalitatea elikadura-beharrizanak estaltzera dago bideratuta, eta 100.000,00 euro jasoko ditu, jangela sozialei eta pobreen artean elikagaiak banatzeari lotutako hiru proiektuetarako.

D modalitateak, prostituzioan dihardutenei zuzendutako laguntza sozial espezializatukoak (zerbitzu publikoek estaltzen ez dutena), 149.149,69 euro jasoko ditu hiru laguntza-proiektu espezializatu garatzeko, tartean larrialdiko eta egonaldi luzeko ostatua prostituzioa uzten duten emakumeentzat.

E modalitateak, ijitoen sustapen sozialera bideratutako jarduerenak, 200.000,00 euro jasoko ditu lau proiektutarako. Proiektuok, batez ere, hauei buruzkoak izango dira: eskolaz kanpoko hezkuntza-laguntza adin txikikoentzat, emakume ijitoen sustapena, eta ijitoen erakundeen sentsibilizazioa, bitartekaritza eta baliabide publikoekiko sare-lana.

F modalitateak, presoentzako eta preso ohientzako gizarte- eta hezkuntza-jardueretara bideratutakoak, 142.657,77 euro jasoko ditu hiru proiektu hauetarako: harrera-pisu bat espetxetik irteteko baimenetarako eta presoentzako eta preso ohientzako aldi baterako egonaldietarako, espetxealdiaren ordeko zigor-programa anbulatorioak drogazaleentzat, eta banakako orientaziorako zenbait programa gizarte-, komunitate- eta lan-esparruetan.

G modalitateak, gizarteratze-prozesuan dauden immigranteentzako laguntza sozialerako jarduketarako, 135.871,20 euro jasoko ditu lau proiektu hauetarako: harrera eta laguntza etorri berri diren gazte immigranteentzat eta haien familientzat; zaurgarritasun sozialean dauden migratzaile gazteei zuzendutako programak, jagoletzaren bidez, laguntza sozialerako prozesuetan; gizarteratze-prozesuan dauden immigranteak gizarteratzeko trebakuntza-programak; eta gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeko laguntza-programa nerabe eta gazte immigranteekin.

H modalitatea buru-osasunaren asaldurengatik tratamenduan daudenentzako eta gizarte-bazterketarako beste faktore batzuk ere badituztenentzako gizarteratze-proiektuetara dago bideratuta. 80.000,00 euro emango dira buru-asaldura larria (menpekotasunak barne) dutenei zuzendutako hiru programetarako, haietako bi berariaz emakumeei zuzenduak.

I modalitatea errefuxiatuak gizarteratzeko laguntza sozialerako prozesuei buruzkoa da. Nazioarteko babesa eskatzen dutenak hartzeko eta gizarteratzeko programa kudeatzeko Nafarroan egiaztatutako erakundeek garatzen dituzte proiektuok. 100.000,00 euro emango dira bi proiektu hauetarako: gizarte-sentsibilizazioa eta errefuxiatuentzako laguntza soziala.

Azkenik, J modalitatean, gizarteratzearen esparruko gizarte-berrikuntzako proiektuak biltzen dira. 143.310,00 euro emango dira hauei buruzko bi proiektu garatzeko: haurrentzako zizka-mizka osasungarriak, barazki eta bio fruitu lehorrekikoak, hezkuntza-gelarekin, emakumeen enplegu inklusiboa sortuz; eta gizarte-ekintzailetzarako eta laneraterako eredu berri bat, habia-kutxak sortuz.

## **2017ko emaitzak**

laz, deialdi honi berari esker, 28 proiektu garatu ziren, eta 39.276 onuradun izan zituzten.

Modalitateka, proiektu bat garatu zen gizarteratzeko okupazio-zentroen kategorian, eta 24 onuradun izan zituen (19 gizonezko eta 5 emakumezko); lau proiektu garatu ziren gizarte-bazterketan daudenentzako egoitza-lekuak sortzearen inguruan, eta 215 lagunengana hobetu zen (141 emakumezko eta 74 gizonezko); eta elikadura-beharrizanak konpontzeko hiru proiektu garatu ziren.

Era berean, prostituzioan dihardutenei zuzendutako laguntza sozialeko bi proiektu jarri ziren martxan, eta 665 onuradun izan zituzten (664 emakumezko eta gizonezko bat); ijitoen sustapen sozialerako lau proiektu abiarazi ziren, eta 3.898 onuradun izan zituzten (2.318 emakumezko eta 1.580 gizonezko); eta hiru proiektu egin ziren presoentzako eta preso ohientzako gizarte- eta hezkuntza-jarduerak garatzeko, eta 95 onuradun izan zituzten (11 emakumezko eta 84 gizonezko).

Gizarte-bazterketan dauden immigranteei zuzendutako hiru proiektu egin ziren, eta 288 lagunengana iritsi ziren (186 emakumezko). Bi proiektuk buru-osasuneko arazoak eta gizarte-bazterketako beste faktore batzuk zituzten 54 emakumerekin egin zuten lan, eta beste bi proiektuk arreta eta sentsibilizazioa eman zuten Nafarroan errefuxiatuak hartzearen eta gizarteratzearen inguruan, non 1.016 lagunek hartu baitzuten parte (520 emakumezko).